

Ezpalak

JON TORNER

Gor diskoetxeak *Aurtengo Gorakada* bildumako 10. diskoa plazaratu du. Bihotz Bakartien Kluba, Kerobia, Lauroba, 121 dB, Ezinean, Vendetta, Hesian eta Lendakaris Muertos taldeen kantak bildu dituzte ale berrian.

Portaloira plataformak antolatuta, presoen oinarriko eskubideen aldeko Elkartasun Eguna egingo da hilaren 14an Arrasaten. Musika tarte berezia izango du: arratsalde partean 20 musika taldek beste hainbat tabernatan joko dute eta iluntzean Peter and The Test Tube Babies, Frontkick, Never Surrender eta The 5 Twisters taldeek kontzertua eskainiko dute Monterron parkean.

Urretxuko Gaztetxea 30. urteurrena ospatzen ari da egunotan. Hilaren amaiera arte ekitaldi ugari izango dira: bideo emanaldiak, bertso saioak, umeentzako txotxongiloak, break dance eta skate txapelketak, kontzertuak eta abar. Hot Dogs (hilaren 13an), Lobo Electrico (14an) eta Shimoflow (21ean) taldeek joko dute besteak beste Gipuzkoako gaztetxe horretan.



Ibon Huarte erreneriarak irabazi du gipuzkoar erako Euskal Herriko Aurreku Txapelketa. 2006an ere nagusi izan zen.

Juan Muñoz eskultorearen obrak izango dira ikusgai Bilboko Guggenheim museoan urriaren 5a arte. *Juan Muñoz atzera begirakoa* erakusketan *Many Times* (Askotan) izeneko obra ezaguna ere jaso dute. Bilbon erakusgai jarri aurretik, Londresko Tate Galleryn erakutsi dituzte artelan horiek.

Lindsay Kemp & Company *Elizabeth I, The Last Dance* ikuskizuna estreinatuko du ekainaren 28an eta 29an Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Ikuskizun horrek dantza, antzerki musikatu eta opera uztartzen ditu. Lindsay Kemp berak jokatu du Elizabeth erreginaren rola.

Euskal Herriko txotxongilo taldeei buruzko *Bitxikeriak* bildu dituzte

UNIMA EUSKAL HERRIA elkarteak antolatuta, VI. Txotxongilo Eguna egingo da ekainaren 13tik 15era bitartean Sondikan. Hama bi txotxongilo taldek parte hartuko dute jaialdian, horien tartean Tenderete, Erre ke Erre, Azika, Bihar, Antzezkizuna eta Behibi's konpainiek. Emanaldiez gain, makillatzen eta txotxongiloak egiten erakusteko tailerrak eta artisautzaz azoka egingo dira Sondikan. Halaber, 14an *Bitxikeriak*. *Andanzas de Títeres y Titiriteros* liburua aurkeztuko du Unimak. Euskal Herriko txotxongilo taldeen lana eta bitzako pasadizoak ezagutaraztea du helburu liburuak. Txotxongilo Egunari buruzko informazioa www.txotxongilo.com web gunean kontsulta dezakezue.



ARTEZ

Santurtziko Bihotz Gaztea ikastolaren bloga saritu dute

SANTURTZIKO BIHOTZ GAZTEA ikastolako ikasleen Bihotz Gazte Goxo blogak (<http://blog.ikasi.eu/BihotzG/>) irabazi du Ikasi.eu Bigarren Hezkuntzako euskal ikasleen arteko lehenengo blog lehiaketa. Alianzo enpresak antolatu du lehiaketa, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesarekin. Bihotz Gazte Goxo blogak ikasgelan gertatzen dena du hizpide.

[Eñaut Gantxegik Nabarra aldizkarian](#): «Protesta egitea badirudi euskaldunongan innatoki dagoen zeozer dela, eta musika terrenora eramanaz zer esanik ez (...) Musikariak eta magoak konparatzen ditut askotan; ez al dira musikari asko ilusionismotik bizi ala? Alegia, hitz eta melodia eder horien atzean dagoen trastienda ilun samarra da askotan. Mitozaleak gara, eta ezin dugu ukatu, gure super heroiei propi-yuak behar ditugu».

[Lorenzo Portillo, Euskadiko Editoreen Elkarteko presidenteordeak Bizkaia! webgunean](#): «Hezkuntza Sailak ezarritako mailegutza sistema hori kulturearen euskal planaren kontra eraso zuzena dala pentsetan dogu, kaltetuak argitaratzaile, liburu saltzaile, banatzaile, erabiltzaile eta sortzaileak eura-

izango diralako. Gu benetako dobakotasunaren alde gagoz eta hori lortzeko badagoz bideak, barbarako, liburu-txekearen aukerea zabaltzea edota liburuen erosketea errenta autorpenean deduziduteko aukerea emotea».

[Jose Mari Zabala artistak Berrian](#): «Kalitatea zer da? Kontzeptu bezala kalitatea ez zait batere adierazgarria iruditzen arte sorkuntzan. Orain ikusten dut zein apetearekin ari diren berreskuratzen garai bateko soinu, argazki, zinema artxiboak, eta nahiz eta tekniki erabateko aldrebeskeriak izan, izugarriko garrantzia dute lekukotza modura. Kalitatearen kontzeptua eroslearen kezka da. Niri bost axola. Nik fotokopia bati izugarriko errespetua diot, ekarri edo ematen didanaren arabera».

Bizitza bera bezalako (baina trinkoagoa)

Estafados (Tricked)

Alex Robinson / Astiberri (2006)

350 orrialde (zuri-beltzean).

Zineman zein literaturan ohikoa den bilakaera du Alex Robinson estatubatuararen *Estafados* nobela grafikoak. Elkar ezagutzen ez duten sei lagun berrak bizitza gurutzatuz joango dira, une eta leku berean guztien bideak tupust egingo duten arte. *Malas Ventas* bere aurreko komikian bezala –hura ere Astiberri argitaratu zuen–, sei lagun horien eguneroko bizitza erakusten digu egileak. Euren kezka, zalantza, ilusio eta hanka-sartzeak sinesgarritasun handiarekin deskribatzen ditu, AEBetako herritar multzo batek bizi dituen fikziozko gertaerak diren arren. Egia da istorioak aurrera egiten duen heinen pertsonaiek naturaltasun apur bat galtzen dutela, eta narrazioaren erritmoak behera egiten duela uneren batean, baina sei lagun horien urratsak elkar gurutzatzeko moduak eta Robinsonek zein bukaera asmatuko ote zuen pentsaizkoak interesa bizi mantentzen du.

Alex Robinsonen azken komikietan elkarrizketek pisu handia hartu ohi dute. Baita plano ertainek ere.

Malas Ventas liburuan, horregatik erabaki omen zuen orrialde bakoitzean pertsonaien hankak

gutxienez behin marraztea, plano zabaltzeko. *Estafados* obran ere elkarrizketa ugari dago, eta protagonisten gogoeta eta oroitzapenek narrazioa papera hartzen dute, pentsamendu bokadilo edo lainoak erabili gabe.

Plano ertainak ere badaude. Gehiegi, aukeran. Komikiaren egitura zurrunez bilakatzen du horrek, pertsonaien keinuak, elkarrizketak eta istorioa bera freskoak diren arren. Marrazkien kasuan freskotasan horren falta sumatzen da batzuetan, eta amaiera aldeko espiral itxurako irudi kaotikoak salbu, ez dago sorpresa handirik.

“Bizitza ez da hain sinplea. Ez da beti zuri-beltzean”. *Estafados* komikiko pertsonaia baten hitzak dira. Ez dabil oker, baina bizitza zuri-beltzean koloreztatu daitekeela erakutsi digu Alex Robinsonek.



JON TORNER

Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak:

Helbidea: Posta kodea: Herria:

Herrialdea: Jaioteguna:

N.A./I.F.K.: _____ - _____ Tel./Faxa: e-posta:

Ordainketa mota: Bankuz
 Talotiez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoak betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa:

Titularra: N.A./I.F.K.:

Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:

Entitatea: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____

Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–**

Aukeratu ongietorri oparia



“Kirolaz badakit”
mahai-jolasa



“888 txiste”
liburua



“Txoriak txori”
lamina



%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidedetza:
2008ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian
165 € Ipar Euskal Herrian



ARGIA

33